

Aginagako erriberetako sagastietan bertso-ibilaldia igandean, Lujanbio eta Egaña bertsolariekin

Noaua Aldizkaria 2019-09-20 09:04



Sagastietan bertsoan, plan borobila prestatu du Sagardoaren Unibertsitateak igande honetarako (irailak 22). Aginagan sagastietan barrena osteratxoa, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsoan direla eta Jakoba Errekondoren azalpenekin.

Iaz Zubietan egin bezala, aurten eskenatokiz aldatu eta Aginagako erriberetako sagastietan barrena ibilalditxoa antolatu du Sagardoaren Unibertsitateak irailaren 22rako (igandea). Goizeko 11:00etan finkatu dute biltzeko hitzordua Aginagako plazan. Handik aipatu moduan oinez, errio ondoko sagastietara, ohorezko bi bidelagunekin; ibilaldia bertsoz girotuko baitute Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak. Txangoak helburu argi bat du; "Sagardoaren Paisaia Kulturala ezagutzea". Gai honi buruzko argibideak eskainiko ditu ibilaldian zehar, Jakoba Errekondo usurbildar paisajistak. Goiza amaitzeko, mokadutxoa izango da Aginaga Sagardotegian.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa martxan

Aginagako irteera, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa martxan jarri berritan ospatuko da. Gogoan izan, Asier Azpiroz Iztueta zubietarrak parte hartuko du bertsoan eta Inaxio Usarralde Aranzadik gai jartzaile gisa. Azpiroren final zortzirenetako saioa larunbat honetan (irailak 21) 17:00etan Ordiziako Herri Antzokian. Txapelketako saioetarako sarrerak salgai dituzue. Hemen xehetasunak:

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Iraupena: irailak 14 (Oñati)-abendua 14 (Donostiako Illunbe).

Lehiakideak: 48 (tartean Asier Azpiroz Iztueta zubietarra). Haietatik zortzi sailkatuko dira Illunbeko final handirako.

Lehiakideekin batera: 15 gai-jartzaile (tartean Inaxio Usarralde Arantzadi aginagarra), 16 epaile eta 4 idazkari eta laguntzaile.

Ospatuko diren saioak: 16 (Usurbildik gertuen, azkeneko final-zortzirena Lasarte-Orian urriaren 5ean eta lehen final-laurdena Andoainen urriaren 19an).

Sareren salmenta: irailaren 2tik aurrera, bertsosarrerak.eus atarian.

Txapelketaren sintoniaren sortzailea: Don Inorrez taldea.

Txapelketaren irudi eta diseinu lanak: Lanku Kultur Zerbitzuak.

Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

Tf: 943 360 321 | erredakzioa@noaua.eus

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)